

## Azalpen-oharra

Hezkuntza Saileko Langileak Kudeatzeko zuzendariaren 2022ko apirilaren 13ko Ebazpenaren bidez, hezkuntza-ikuskaritzako 5 lanpostu zerbitzu-eginkizunen erregimenean betetzeko deialdia egin zen, eta zerbitzu horretarako ordezkapenen zerrenda zabaldu zen. Ebazpen horretan antzemandako zenbait akats direla eta, honako argibide/zuzenketa hauek egin behar dira:

1. Lehenik eta behin, **gaztelaniazko bertsioak** kalibre desberdineko zenbait akats ditu, okerreko dokumentu bat argitaratzearen ondoriozkoak. Beraz, euskarazko bertsioak gailendu behar du.
2. Bai gaztelaniazko bertsioan, bai euskarazkoan, 5 plaza deitzen direla jasotzen da. Hala ere, akats bat da, **4 plaza deitzen** baitira benetan.
3. Halaber, **eskabideak aurkezteko epea maiatzaren 10ean amaituko** da, 6. egunaren orde.

Horregatik guztiagatik, deialdiaren **bertsio zuzenak argitaratzen** dira jarraian, gaztelaniaz zein euskaraz.